

## Mozorro-txapelketa



Herrian Ihauteriak dira. Jendea mozorrotuta dago. Gorka, Janire eta Izaskun ere mozorrotuta daude. Gaur mozorroen txapelketa ospatzen da herrian. Gure lagunek parte hartuko dute baina lagun bat falta da. Nor ote da?

—Non dago Gontzal? —galdetzen du Izaskunek.

—Begira! Hortik dabil —dio Janirek.

Mozorro-txapelketa kalean egiten da. Jende asko ikusten ari da. Aurkezlea eszenatokian dago, txapelketari hasiera emateko prest. Janire, Gorka eta Izaskun oso urduri daude zeren ez duten Gontzal ikusten eta txapelketa laster hasiko da.

—Eta Gontzal? —galdetzen du Gorkak.

—Begira! Han dago, pailazoarekin —dio Izaskunek.

Gorka, Janire eta Izaskun zerbait pentsatzen ari dira. Zer ote da?

—Broma bat egingo diogu? —proposatzen du Gorkak.

—Ederki! —dio Janirek.

Txinoz jantzita, txirikorda luze-luzea. Horixe baietz! Gontzal da. - pentsatzen du Gorkak.

—Gontzaaaaal! —oihukatzen du Gorkak. Baina, hau ez da Gontzal. Hau benetako txinoa da.

—Ni ez naiz Gontzal. Ni Lin Txu naiz!

—esaten du txinoak.

—Hau da zorte txarra! —pentsatzen du Gorkak.

Azkenean, hortik dator Gontzal, korrika, eta galdetzen die:

—Baina, zer egiten ari zarete?



## MOZORRO-TXAPELKETA

### Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nola dago jendea?

.....

2.- Noiz ospatzen da mozorroen txapelketa?

.....

3.- Non egiten da mozorroen txapelketa?

.....

4.- Nor dago eszenatokian?

.....

5.- Zertarako dago prest aurkezlea?

.....

6.- Nortzu daude urduri?

.....

7.- Noiz hasiko da txapelketa?

.....

8.- Nolakoa da txinoaren txirikorda?

.....

9.- Txinoa Gontzal da?

.....

10.-Nola du izena txinoak?

.....